

BALOREZKO PROPOSAMENA

Lan baldintzak hobetzea eta lanpostuen eta langileen kokapenarekin zerikusia daukan informazioa eskuragarriago uztea bai enpresa bai langileei, bezero guztien erosotasuna bermatzeko eta pertsona guztien lan egiteko gaitasuna sustatzeko, hori da Lanbila Auzoan aplikazioaren helburu nagusia. Enpresa eta bere langileen harteko harremana errazten du eremu geografikoaren arazoa konpontzera zuzenduta dauden zerbitzuak eskeiniz.

Aplikazio honen bidez, langileen eta enpresaren arteko harremana errezagoa eta konkretuagoa izango da, langileen baldintza onak errespetatuko dira eta eremu geografiko konkretu baten neurriak kontuan izatearen alde egingo da. Hau da, langileek aplikazio honen bitartez gertuko lanpostu libreak aurkitu ahalko dituzte eta ez dira hurrunera joan beharko eta ondorioz lanpostuarekin erosoago sentituko dira.

Beraz, lehiakideengandik bereizten gaituena da: Berritasuna, ez baitago sektore honetako zerbitzu zehatz hau eskaintzen duen beste aplikaziorik; Lana erraztea, lanaren bilaketa errazteaz gain lanpostuaren kokapenari buruzko baldintzak hobetzen ditu; Prezioa, pertsona guztien helmenera baitago dirurik ordaindu beharrik gabe; Eskuragarritasuna, gailu elektronikoko bat eskuragarri daukaten pertsona guztiek eskuratu dezakete eta; Erabilerraztasuna, aplikazioa funtzio sinpleak eta erabiltzeko eta lana aurkitzeko erraztasuna eskaintzen dio bezeroei.

Horrez gain, gure aplikazioa segurtasuna bermatzen du bezeroen datuei eta bezeroen ongizateari dagokionari buruz, kokapenari eta nortasunari buruzko datu pertsonalak ikusteko gai izango dira soilik gure aplikazioan erregistartuta dauden enpresa baimenduek, eta bezeroak gure aplikazioaren bidez lan-egoera txarrean badaude, egoera konpontzen eta haien ongizateaz arduratzen saiatuko gara. Diseinuari dagokionez, aplikazioaren diseinua erakargarria eta atsegina da, bezeroak erakartzeko eta haien erosotasuna bermatzeko.